



Birusa gehiago zabaldu da Durangaldean, eta Eusko Jaurlaritzaren aginduz itxialdia dago ezarrita Otxandion, lurretan, Durangon, Elorrion eta Zornotzan. Bien bitartean, gainerako udalerrietako egoera epidemiologikoa okerrera egiten dabil. LABI batzordea gaur da batzekoa, eta baliteke datozen orduetan birusari eusteko neurri murriztaile gehiago ipintzea. • 4

Neurri murriztaile berrien zain

Ekintzailetasuna pandemian: negozio eta argi izpi berriak

Komertzio txikiak • Ezegonkortasunez beteriko sasoiak bada ere, eskualdeko hainbat herritarrek negozio berriak zabaltzeko aukera ikusi dute pandemian zehar. ANBOTOK Durangaldeko lau ekintzaileren bizi-penak batu ditu: Durangoko Zenia ile-apaindegiko kideek ia zoko ekainean hasi zuten ibilbidea. Ernetu

psikologia zentroko kideek urtea hasi berrikan. Ekana kirol prestaketa zentroko kideek salto kualitatibo handia eman dute oraintsu. Eta Elorrion hotel berri bat zabaltzeko proiektua bere amaierara heltzar da. Irudian, Niko Moreno elorriarra. Aste gutxi batzuk barru zabaldu gura du hotela. • 2-3



"Durangok sormena lantzeko espazioak behar ditu"

Plateruena • Lan saio parte hartzaile deitu dute otsailaren 6rako, Plateruena geroaz hausnartzeko. • 24

IURRETAKO HEZKUNTZA eremua

Olaburu auzunea, IURRETA

--AURREMATRIKULAZIOA--
Urtarrilaren 18tik 29ra

- Gune egokia.
- Jantokia eta garraioa.
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak.
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak lurretan.

MAIZTEGI
946 810 937

 OROBIOGOITIA
944 288 000



2-12 urte
MAIZTEGI
HH eta LH



12-18 urte
OROBIOGOITIA DBH eta
Batxilergoa

Korrontearen aurka, bidean gora

Durungaldean ez dira gutxi pandemia sasoian negozioa zabaltzea erabaki dutenak. Bidea aldapatsua izan arren, aurrera egiteko aukera bat ikusi dute

KOMERTZIO TXIKIA • EKAITZ HERRERA

Diotenez, izokinek errekan gora egiten dute kumaldi sasoiak helterakoan. Korrontearen aurka igeri egiten dute, harik eta jaio ziren tokira ailegatzen diren arte. Bertan ipintzen dituzte arrautzak, eta modu horretan ziurtatzen dute espeziearen segida. Bada, izokinen antzera, Durungaldean ez dira gutxi korrontearen aurka sortzen dabiltenak. Hainbatek negozio berria zabaltzea erabaki dute, noiz eta pandemiak dena irauli duen sasoi ezegonkor honetan. Ez hori bakarrik. Bada negozioa pandemia ailegatu baino lehenago zabaltzea planifikatu, eta, hala ere, orain aurrera egitea erabaki duenik ere. Biak ala biak errekan gora igeri egiten hasi dira. Izokinak Durungaldeko kale urbanoetan.

Behargintza lagun

Oztopoz betetako bidea dutenez, askok bidelagunak topatu ohi dituzte. Kasu askotan, Behargintza da herritarrek negozio aukerak gartzeko izaten duten zerbitzuetariko



Behargin bat Durangoko lokal komertzial batean lanean.

bat. Behargintzak oraingoz ez du 2020ko datuen berri eman, baina 2019 amaieran adierazi zuenez, gutxi gorabehera eta batez beste, 60-70 bat dira Durungaldean urtero sortzen diren enpresak.

Dena dela, ez da ahaztu behar enpresa berriak sortu diren moduan, atek zarratu behar izan dituztela beste hainbatek. Huts egingo genuke egoeraren larriari erreparatuko ez bagenio. Datu bat: Durungaldeko langabezia indizea %7,98an zegoen 2020ko otsailean eta % 8,62gaz itxi zuen urtea. Eta datu horren atzean ERTEak ezkutatzen direla kontuan hartu behar da.

Edozelan ere, pandemia sasoian negozioa zabaltzeko ausardia izan dutenak elkarrizketatuta osatu gura izan dugu aste honetako erreportajea. Asko izan direlako koronabirusaren bidezidorretan ziztatu gaituzten arantzak, eta gutxi izan direlako usaindu ahal izan ditugun loreak. Bada, horiei, lore berriei erreparatuko diegu gaurkoan. Tarteka, Durungaldeko asfalto artean, topa-



“Itxaropentsu egon behar dugu”

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Niko Morenok eta Maider Ugarrizak M&U-GA hotela zabalduko dute Elorrioko Berrio-Otxoa kalean, Casa Jara Jauregiaren zerbitzarien etxean. Otsailaren amaieran martxan ipintzea aurreikusi dute.

Noiz hasi zineten proiektuagaz?

2017an hasi ginen. Argi genuen prozesu hau dastatzeko eta ikasteko zela, eta ez agobiatzeko. Ikasteko prozesu bat izatea gura genuen. Asko ikasi dugu ostalaritzari eta interiorismoari buruz.

Obrak konfinamenduagaz batera hasi ziren.

2020ko martxoaren 6an. Eta gero, konfinamendua etorri zen. Zortea izan dugu, obraren plangintzak etenaldi batzuk aurreikusi zituelako, eta etenaldi horiek bat egin

zuten itxialdiaren sasoirik gogorrean. Berez, obra 9 hilabetea egitea aurreikusita zegoen, inork sinistu ez arren. Eta bete-betea asmatu dugu. Obra abenduaren 15erako egon da amaituta.

Turismo arloa oso kaltetuta dago. Arduratuta zaudete?

Guk izan dezakegun publikoa turistak dira, eta bestetik turismo profesionala da. Hori guztia une honetan airean dago eta ez dakigu zer gertatuko den. Zabaltzeaz gauden momentuan egoera ez da onena eta ezjakintasunez beteta dago. Sentsazio guztiak batzen zaizkigu. Itxaropentsu egon behar dugu eta planteatzen duguna da zerotik hasita ikasi beharko dugula egoerarik zailenetan. Beste ikasgai bat izango da. Gauden fasean, ezin dugu atzera egin.



“Aurrera egitea erabaki genuen”

DURANGO • JONE GUENETXEA

Eztizen Vazquezek eta Sonia Cambronelek Zenia ile-apaindegia zabaldu zuten iazko ekainean.

Konfinamenduak proiektuaren zein fasetan harrapatu zintuzten?

Obren hasieran lizentzia eskaerak egiten harrapatu gintuen. Hortxe gelditu zen obra, dena lotuta, baina geldirik. Bigarren fasean hasi ahal izan genituen obrak. Maiztaren erdi inguruan izan zen hori. Dena ahalik eta arinen egin genuen. Dena luzatu zitzaigun. Apirilean lanean hasia aurreikusten genuen.

Noiz zabaldu zenuten?

Ekainaren azkenengo astelehenean zabaldu genuen ile-apaindegia.

Aurrera egitea erabaki zenuten.

Jarrera positiboa izan genuen. Dena prest geneukan. Beldur ginen, ez genekielako zer gertatuko zen. Aurrera egitea erabaki genuen.

Zelan joan da dena?

Sei-zazpi hilabete daramatzagu lanean. Ezin gara kexatu. Bezeroek oso ondo erantzun dute. Gainera, oso arduratsuak dira. Ile-apaindegira maskaragaz datoz denak.

Neurri bereziak hartzen dituzue?

Bai, gelak eta maskarak ditugu, baten batek aldatzea gura badu. Garbitasuneko eta segurtasuneko protokoloa ere badugu. Kobratu eta gero eskuak garbitzen ditugu eta bezeroak ile-apaindegitik irteten duenean dena garbitzen dugu. Hasieran korapilatsua goa zen, baina orain ondo konpontzen gara.



"Ilusionatuta eta motibatuta gaude"

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Josu Saeterok (Abadiño, 1993) eta Joseba Verak (Durango, 1993) Ernetu psikologia zentroa zabaldu dute Durangoko Jose Antonio Agirre Lehendakaria kalean. Urtarrilaren 4an zabaldu zuten zentroa. Dagoeneko jendea erantzuten hasita dagoela diote.

Pandemia baten erdian egonda, erraza da negozioa zabaltzeko erabakia hartzea?

Joseba Vera: Erraza ez da. Baina denbora asko eman dugu prestaketa lanetan, eta aurrera egiteko erabakia oraintxe hartu dugu. Ilusionatuta eta motibatuta gaude.

Josu Saetero: Helburua hau sortzea zen eta oso motibatuta geunden. Ezin ge-

nuen ezetz esan. Gure helburuak betetzeko apustua egin dugu.

Aspalditik zenuen zentro hau zabaltzeko ideia?

J.S.: Orain arte egondako lanpostuetan ikusi dugu gure esperientziak beste era batera garatu genitzakeela, eta esperientzia horiek jendeagaz partekatu genitzakeela. Horri buruz berba egiten hasi ginen. Gero, konfinamendua ailegatu zenean behin-betiko erabakia hartu genuen. Ez genekien zer etorriko zen, baina aurrera egitea erabaki genuen.

J.V.: Egoera honek ekarriko zituen ezbeharraurrek aurreikusten aritu gara. Geure buruak horri erantzuna emateko prestatu ditugu. Datorrena datorrela aurrera egiteko prestatu gara.



"Egoera honek indartu egin gaitu"

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Urte batzuk joan dira Jon Urienek (Abadiño, 1991) eta Jokin Idirinek (Abadiño, 1991) goi-mailako prestakuntzarako Ekana zentroa zabaldu zutenetik. Bada, oraintsu, etapa berri bat hastea erabaki dute. Negozioa tokiz aldatu dute eta lehengoa baino hiru bider zabalagoa den lekuan ipini dute prestakuntza zentroa.

Hiru bider handiagoa den lokala eta instalazio berrituak. Finantzaketa sinatzerakoan dardararik egin al dizue eskuak?

Ez. Ez digu dardararik egin. Egoera arraroa den arren eta ezegonkortasuna nagusi den arren, guri ez digu askorik eragin. Ikusi genuen gure arlorako beharrezkoa

zela. Orain egin ezik, gero beranduegi egingo zitzaigulakoan geunden. Dena dela, egia da erreparatzen geniola pandemiari, etekinei, gastuei... baina erabakia garbia izan zen.

Beraz, negozioa ondo doakizue.

Zorionez, sekula ez gara lan faltan egon. Gure lana entrenamendu pertsonalizatutara hurbiltzen denez, testuinguru honek indartu egin gaituela dirudi. Gimnasioetan jende gehiago ibiltzen dela-eta, hainbatek bertatik irten du eta gurearen moduko zentroetan topatu du kirola lasaiago egiteko aukera.

Hona datorrenak zer topatuko du?

Bere beharrianetara egokitutako kirol entrenamendu bat. Entrenamendu oso bat.



Erregai-kontsumoa NEDC/WLTP (l/100 km): 1,5-1,4/1,4-1,1. CO₂ isurtzea NEDC/WLTP (g/km): 34-32/31-25 Kontsumo elektriko haztatua NEDC/WLTP (kWh/100 km): 15-14,6/23,4-20,7.

*Modo elektrikoan, NEDC-en arabera. **%0-100 16A-ko linea monofasikarekin (3,7kW).

Clase A Berria Hibrido Entxufagarria EQ POWER

Mugarik gabe hiri barruan eta hiritik kanpo.

Mugitu hiritik emisiorik eta murrizketarik gabe motor elektriko bati esker eta gozatu gasolina-motor batek ibilbide luzeetan ematen dizun askatasunaz. Gidatu Clase A 250 e, 77km-ko autonomiadun **Etiketara 0** duena*, handiena bere segmentuan.

Clase A 250 e Hibrido Entxufagarria.

- Kargatu etxean 2 ordu eta 45 minututan**
- Matrikulazio-zergarik gabe
- **Plug&Go** paketea: 3 urteko bermea, 6 hilabeteko karga publikoa doan Iberdrola eta %10eko deskontua Iberdrola energian urtebetez



Mercedes-Benz




Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionario ofiziala
Retuerto Kalea, 38.
48903 BARAKALDO.
Tel.: 94 497 00 74.
www.mercedes-benz-aguinaga.es

Boroa enpresa-parkea, 2A-3 partz.
48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47.

Botika Zaharra, z/g.
48014 BILBO (DEUSTU). Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre etorbidea, 90.
48940 LEIOA. Tel.: 94 463 11 75.



Durangoko kaleak. Herria eremu gorrian dagoenez gero, herritarrek mugatuta dituzte sartu-irtenak.

Durangaldeko egoera epidemiologikoa okerrera egin du azken egun hauetan

KORONABIRUSA • EKAITZ HERRERA

Bazetorrela, bazetorrela, eta hara, konturatu orduko ate joka. Koronabirusa zabaldu egin da azken egunotan eta kasu positiboek nabarmen gora egin dute gure eskualdean zein Euskal Herri osoan. Barikutik martitzen honetara bitartean, 277 kasu berri baieztatu dituzte Durangaldeko herrietan. 159 barikuko, zapatuko eta domekako datuak kontuan hartuta; 69 astelehenean; eta beste 49 martitzenean. Badirudi gurpilak 360 gradu buelta eman duela eta lehengo toki berera bueltatu dela: iazko azken hileetako egoerara, hain zuzen ere. Gorakada honen joera ikusita,

Eusko Jaurlaritzak hainbat neurri murriztaile ezarri zuen aste honen hasieran. Durangon, Otxandion, Iurretan eta joan zen astetik eremu gorrian sartuta zegoen Zornotzan, zehatz esanda. Aginduak hiru oinarri zituen: bat, ostalaritza ixtea; bi, udalerrian itxialdi perimetrala ezartzea, eta, horrenbestez, herriko sarrera-irteerak mugatzea; eta hiru, eskola kirola bertan behera uztea. Elorrio ere eremu gorrian sartu zen atzo. Jaurlaritzak itxialdia ezarri du bertan eta ostalaritza ixtea agindu du.

Hemendik aurrera gainerako herriekin zer gertatuko den jakitea ezinezkoa bada ere, panorama

orokorrak okerrera egingo duela ematen du. Abadiño eta Elorrio, adibidez, pandemiaren eremu larrietan daude eguaztenetik. Eta datuak goraka doaz, baita biztanleria txikiagoko herrietan ere.

"Urtarrila ailegatuta bagenekien tabernetako atek zarratu beharko genituela"

Ostalaritza, beste behin

Ostalariek neurri murriztaileen jopuntuan dauden sentipena dute. Berrero. *Déjà vu*. Durangoko, Iurretako, Zornotzako eta Otxandioko ostalariei galdetzea besterik ez

dago. "Urtarrila ailegatuta bagenekien atek zarratu beharko genituela", aitortu du Aroa Nodarrek, Durangoko Kaixo tabernako arduradunak. Azken boladan behargin bat gutxiagaz aritu dira lanean, egoerak horretara behartu dituela eta. Herria tabernakoen kasua ere antzerkoa da. Angi Uri da bertako arduraduna. "Guk uste dugu ostalaritzak ez duela zertan itxi. Ordutegia murriztu daiteke. Terraza mantendu daitekeela esango nuke, posible dela", dio. "Eramateko kafea eskainita aurrera egingo dugu, baina, zoritxarrez, hiru behargin ERTera joan beharko dira", azaldu zuen.

Berrikuntzak gaur

Badirudi datozen orduetan neurri murriztaileak zorroztu dituztela. Iñigo Urkullu lehendakaria LABI batzordeagaz batzekoa da gaur eta neurri berriak aktibatze-ko aukera mahai gainean dagoela zabaldu du asteon. Bere proposamenen artean dago sei pertsonako gehienezko taldeak lura jaistea, edo etxeratze ordua aurreratzea. Urkulluri etxeratze agindua 18:00etara edo 20:00etara aurreratzeko aukera egotea gustatuko litzaiokeela adierazi zuen Bingen Zupiriak, Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak, astelehenean.

Agerraldia Durangoko Tabira Berri egoitzan

Bizkaiko Foru Aldundiak martitzenean jakinarazi zuenez, astea hasi berritan koronabirus agerraldi bat egon zen Durangoko Tabira Berri egoitzan. 13 lagun kutsatu ziren: 8 egoiliar eta 5 behargin. Egoiliarretariko bi ospitaleratu egin behar izan zituzten eta gainerako seiak "arreta soziosanitario espezializatuko unitateetara" eraman zituzten. Aldundiaren esanetan, egoitzako egoiliarrek eta profesionalak urtarrilaren 4an jaso zuten koronabirusaren aurkako txertoaren lehenengo dosia. Antzera bateko agerraldiak gertatu dira Bizkaiko beste hainbat egoitzatan ere. Aldundiko datuen arabera, urtarrilaren 17aren amaieran, Bizkaian adinekoentzat baimenduta dauden 154 egoitzetan (guztira, 10.748 plaza) 226 erabiltzaile zeuden COVID-19ak kutsatuta, eta eurretari 37 ospitaleratuta. Egoitzetako langileei dagokienez, 185 ziren baieztatutako positiboak, eta 80 isolatuta zeuden (COVID-19a baieztatu barik).

Zaldibarko baheketan ia %60ko parte hartzea egon da

1.602 zaldibartarrek parte hartu zuten PCR proba egiteko deialdian, deituta zeudenen %57k. Jose Luis Maiztegi alkatearen esanetan, proba horietariko seik emaitza positiboa eman zuten koronabirusean. Herritarrek baheketan izandako jokabide "eredugarria" goraiatu du Maiztegi.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021ko urtarrilaren 22a
19. urtea - 835. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durango Udalak txakurrentzako zazpi gune berri atondu ditu

Honako gune hauek prestatu dituzte txakurrentzako: Faustebekoa, Astolabidea, Zuhatzola, Tabira, Zumarkalea, Ibaizabal parkea eta Ambrosio Meabe parkea

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Udalak txakurgune berriak atondu ditu Faustebekoa, Astolabidean, Zuhatzolan, Tabiran, Zumarkalean, Ibaizabal parkean eta Ambrosio Meabe parkean. Txakurren jabeek ordenantzaren baldintzak bete beharko dituztela gogorarazi du udalak; gorotzena eta animaliak kontrolatzearena, batez ere. Iturriak, paperontziak eta hiri-altzariak ipini dituzte. Seinale berriak ere ipini dituzte eta txakurrek ordutegi zehatz bat izango dute eremuetan solte ibiltzeko, arriskutsu lez katalogatutako txakurrek izan ezik. Eremu berriekin, 10.930 metro karratu gehiago egongo dira Durango txakurrentzat; 23.550 metro karratu guztira.



Durango atondutako txakurguneetako bat.

Erika Lagomak eta Estitxu Fernandezek Tene Mujika saria irabazi dute

Beka horregaz, amatasuna eta feminismoa oinarri hartuta elkarrizketa sorta bat landuko dute



DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Erika Lagoma Pombar (Lesaka, Durangaldean bizi da, 1981) eta Estitxu Fernandez Maritxalar (Lesaka, 1975) eskurik esku arituko dira "amatasun disidente eta feministak" erakutsi gura dituen elkarrizketa-sorta bat ontzeko. Urtebeteko epea izango dute eta 2022an liburua plazaratuko dute Elkar argitaletxeagaz. "Amaren irudi patriarkal estereotipatuaz

gaindi, eta superwoman-en amatasun neoliberaletik urruti, egungo sistema zalantzan jarri nahi duten ama izateko modu desberdinak jasoko dira: askotarikoak, errebeldeak, kontraesanei uko egiten ez dietenak. Hamaika bizi-pen, hamaika praktika, hamaika esperientzia. Eta horien ondoan, beren aitatasuna feminismitik bizi nahi duten bi gizonezkoren kasuak", gaineratu dute.

Durango Udalak katu koloniak kontrolatuko ditu CES sistemaren bitartez

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Udalak CES izeneko zerbitzu berri bat lizitatu du Durango katu koloniak kontrolatzeko. Honetan datza: katuak harrapatu, antzutu eta berriro libre utziko dituzte. Metodo hori lehenengoz erabiliko da herrian, eta katuok zaintzen dituzten boluntarioen laguntzagaz garatuko da.

Datozen egunetan, antzutzeko kanpainak egingo dituzte udalerrian dauden katu kolonietan, animalia horien populazio egonkorra eta osasuntsua lortzeko. "CES metodoak kolonietako katuen bizikidetzara ere hobetzen du, borrokak, zaratak, markatzeak eta ugalketaren ondoriozko beste eragozpen batzuk murrizten edo ezabatzen ditu-eta", azaldu du udalak ohar batean.

Parte hartu ahal izateko, zerbitzuari buruzko hasierako prestakuntza jasoko da, bai eta animalien ongizaterako eta egoiliarrekiko bizikidetzarako jardunbide egokien gida ere. (Informazioa: ces@durango.eus).

Bestalde, 2010etik esleitu barik zegoen animaliak biltzeko zerbitzua lizitatu du Durango Udalak. Zerbitzu honek badu berritasun bat: txakurrez gainera, katuak ere sartzen dira zerbitzuan.



Ariketa fisikoa egiteko gune bat zabalduko dute Ibaizabal kaleko parkean

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Udalak aire librean ariketa fisikoa egiteko beste gune bat zabalduko du Ibaizabal kaleko parkean. 'Kalistenia' izenez ezagunagoak diren kaleko gimnasio hauek hainbat gailu izaten dute jendeak ariketa fisikoa egin dezan. 30 metro karratu eta 12 ariketa gune izango ditu. Gomazko zorua ipiniko dute behean. "Udaletik adin guztietan ariketa fisikoa sustatzearen aldeko apustu argia egiten dugu", adierazi dute Aritz Bravo eta Julian Ríos zinegotziek.

30.000 euroko aurrekontuagaz, lanak otsailaren erdialdean hastea aurreikusten dute udal arduradunek. Obrek bost asteko iraupena izango dute.

Aurrematrikula zabalik!
Urtarrilaren 18tik 29ra

**Eskatu hitzordua,
zure zain gaude.!**

Zure kuttuna Gure altxorra



SAN ANTONIO
IKASTETXEA
Irakasleon Kooperatiba

Tel: 94 681 67 76 ikastetxea@sanantonio.eus www.sanantonio.eus

Zaldibar Argituk elkartasun ekitaldia antolatu du urteurrenaren atarian

Urtarrilaren 23an egingo dute elkartasun ekitaldia, 12:30ean, Eibarko Armeria eskolan



Zaldibar Argituk deituriko protesta bat.

ZALDIBAR • A.M.

Otsailaren 6an urtea beteko da Zaldibarko Eitzaga auzoko hondakindegia amildu zela. Ordutik, Joaquin Beltranen gorpuzkien bila jarraitzen dute [Alberto Sololuzerenak abuztuan aurkitu zituzten], eta martxan dago, baita ere, hondamendiaren inguruko prozesu judiziala. Urteurrenaren atarian, Zaldibar Argituk plataformak elkartasun ekitaldia antolatu du zapatu honetarako, hilak 23rako. "Gertatu zena oroitzeko, erantzukizunak eskatzeko eta Joaquin Beltran aurkitu dezatela exijitzeko antolatu dugu ekitaldia", adierazi dute plataformako kideek. Eibarren (Gipuzkoa) egingo dute ekitaldia, 12:30ean hasita, Armeria eskolan, eta Euskal Herri osoko sortzaileek parte hartuko dute bertan; besteak

beste, Liher, Petti eta Olatz Salvador musikariak igoko dira ohol-tzara; Miren Amuriza bertsolari berriztarrak eta Eneko Sagardoy aktore durangarrak ere parte hartuko dute ekitaldian. Nerea Ariznabarretak egingo ditu aurkezle lanak. *Lagundu Argitzen* lelopean egingo dute ekitaldia. Ekitaldiko sarrerak hamar euroan daude salgai; Zaldibarren, Imendia saltokian erosi daitezke.

Crowdfunding kanpaina

Zaldibar Argituk crowdfunding kanpaina ere ipini du martxan. "Epaiketak ekarriko dituen gastuei aurre egiteko ipini dugu martxan kanpaina hau. Lortutako dirua Euskal Herriko Karta Sozialagaz batera herri akusazioa aurrera ateratzeko erabiliko dugu", azaldu dute ohar baten bitartez.

Jaurlaritzak dio Verter dela zabortegia amildu osteko ingurumen kalteen arduraduna

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Erreketako uretan, lur azpiko uretan eta lurrazalean egondako ingurumen kalteen arduraduna zabortegia bera dela ebatzi du Jaurlaritzak, amiltzea gertatu zenean "instalazioen operadorea" bera zelako. Eusko Jaurlaritzak informazio hori jakinarazi du, iazko martxoaren 4an zabaldu osteko ingurumen espedientearen ebazpena asteon kaleratuta.

Jaurlaritzaren ebazpen horrek URA agentziaren txosten bat du oinarri. Besteak beste, erreketako urei dagokionez, ezarritako arau mugak gainditzen dituzten "bentzenopireno eta fluoranteno" kontzentrazioak topatu dituzte Aixolako ubidean. Ego errekan ere uraren kalitateak okerrera egin duela baieztatu dute. 300 metroko erreka tarte batean amonio eta ortofosfato konposatuen eragina dagoela dio URak.

Verterri begirako ondorioen artean, kalte gehiago prebenitzeko neurriak har ditzala eskatu dio Eusko Jaurlaritzak enpresari. Bestalde, izandako ingurumen kalteak konpontzeko proiektua aurkeztu dezala eskatzen dio.

"Soldata diskriminazioa" salatu dute La Magdalenan

LAB sindikatuak salatu du soldata desberdina dela kategoria bereko langileen artean

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte hasieragaz batera, Abadiño-ko Transmisiones La Magdalena enpresako langileak elkarretaratzeak egiten hasi dira. LAB sindikatuak azaldu duenez, "soldata diskriminazioagaitik eta lan baldintzen prekarizazioagaitik" irteten dute langileek kalera. Kategoria bereko langileen artean soldata desberdina dela salatu du, hain zuzen ere, sindikatuak. "Lan berdina gaitik soldata desberdina kobratzen dute langile batzuek eta

besteak. Eta, horrez gainera, lan baldintzak ere okertzen dabilta", azaldu dute sindikatuko kideek.

Greba egunak

Egoera hori salatzeke asmoz, Transmisiones La Magdalenako langileak elkarretaratzeak egiten hasi ziren. Eta asteon pauso bat aurrera eman dute. Akordiorik lortu ez dutenez, greba egun bi egin dituzte. Lehenengoa eguaztenezan izan zen, urtarrilak 20. Bigarrena, atzo.



La Magdalenako beharginak enpresa aurrean egindako elkarretaratzean.

Eskolako patioa "hankaz gora" dagoela kritikatu du Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak

Xabier Azkarate Atxondoko alkateak azaldu duenez, arazoak dituzte aterpearen beraren horniketaz, eta horregaitik daude lanak geldituta. "Neu ere arduratuta nago", esan du

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eskolako patioa "hankaz gora" dagoela salatu du Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak. "Eskolan patioa irailean estaliko zutela zabaldu zuten udaletik. Gero, obra atzeratu egin zen eta Gabonetako oporraldia aprobetxatuz egingo zutela esan zuten", adierazi dute guraso elkarteak. Gabonetan lanei ekin zieten, baina orain lanak geldirik daude. "Patioa hankaz gora dago. Aterpea atzeratik ekarri behar dutela eta hile eta erdian zain egon beharko dugula esan digute. Horrelako aurreikuspen falta izatea harrigarria da", salatu dute guraso elkarteak kideek.

Guraso Elkarteak kideek egoera berehala konpontzeko eskatu diote Atxondoko Udalari

Alkateak dio eurak ere "arduratuta" daudela eta egoera "ahalik eta lasterren konpontzea" gura dutela

Horrez gainera, Atxondoko Udalari egoera berehala konpontzeko eskatu diote.

Udala arduratuta

"Egia da hasieran lanak irailan egin behar genituela, baina Gabonetako oporraldia egokiagoa izango zela uste genuen. Orain arazoak ditugu horniketaz. Eta aterpea hemen izateko hile eta erdi itxaron beharko dugula esan digute", esan du alkateak. Eurak ere "arduratuta" daudela eta arazo "ahalik eta lasterren konpontzea" gura dutela aitortu du Azkaratek.

Apatamonasterioko ludotekak berriro zabaldu zituen ateak, astelehenean

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Apatamonasterioko ludoteka berriro dago zabalik, astelehenean. Udaletik azaldu dutenez, ekainaren 15era arte egongo da zabalik, osasun egoerak okerrera egiten ez badu behintzat.

Horrez gainera, udaleko kideek esan dute ikerketa bat ipiniko dutela martxan, eskaintako zerbitzuak hobetzen jarraitzeko. "Iaz egiteko asmoa genuen. Osasun krisiak atzeratu egin du, baina parte-hartze prozesua egiteko konpromisoari eusten diogu, herritarrek zer gura duten jakiteko. Tailer, ekintza, kultur ekitaldi, antzerki edo irteera gehiago eskatzen dituzten jakin gura dugu eta horiek ebaluatuta eta baloratuta ikusiko dugu zer egin daitekeen", azaldu dute udaleko kideek.

Irakurtzea gogoko duten pertsonentzat irakurzale kluba antolatu dute Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irakurtzea gustuko duten pertsonentzat irakurzale kluba antolatu dute Berrizen. Udaletik azaldu dutenez, irakurzale kluba irekia da, eta bertan irakurritako liburuari buruzko iritziak partekatuko dituzte. Klubaren helburuetariko bat euskal idazleen lanak ezagutaraztea ere bada.

Liburua irakurtzeaz gainera, ahal den neurrian idazleagaz beragaz batzeko aukera ere egongo dela azaldu dute.

Irakurzale klubari otsailaren 10ean emango diote hasiera, eta hileko bigarren eguaztenezan batuko dira, 16:30etik 18:00etara. Parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute, euskara@berriz.eus helbidera idatzita edo 94 622 53 69 eta 639 400 786 telefono zenbakietara deituta.

www.kurutziagaikastola.eus


BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA 



ESKAINTZA

0 urtetik 18 urtera
bitarteko hezkuntza eskaintza



HELBURUA

Ikasle eleanitz, kritiko
eta euskaldunak



JANTOKIA

bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak

Herriko Taberna handitu egingo dute, osasun kontsultategiko espazioa ere hartuta

Osasun kontsultategia udaletxeko eraikinetik herriguneko beste lokal batera lekualdatuko du Mañariko Udalak

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Herriko Taberna gaur egungoa baino handiagoa izango da etorkizunean, berriro zabaltzen dutenean. Izan ere, barrualdea eraberritzeko proiektuaren barruan, taberna handitzea erabaki du udalak. Gaur egun tabernak dituen 150 metro karratuei beste 35 bat gehituko dizkiete, gaur egun mediku kontsultategia dagoen espazioa ere bertan barneratuta. Horrela, toki gehiago eman gura diote mahaia ipintzeko eta jatetxe zerbitzu zabalagoa eskaintzeko.

2019ko azaroan udalaren jabetzako lokala hutsik geratu zenetik, taberna eraberritzeko proiektu integral bat lantzeari ekin zioten. Besteak beste, tabernako barra



2019ko azarotik itxita dago Mañariko Herriko Taberna.

Taberna eraberrituak leku handiagoa izango du, mahaia gehiago ipintzeko eta jatetxe zerbitzua eskaintzeko

handitzea eta tokiz aldatzea pentsatu zuten. Proiektu hark ez zuen taberna handitzea aurreikusten. Negozioaren kudeaketa esleitu aurretik, osasun krisia heldu zen eta asmoa atzeratu egin behar izan zuten. Harrezkero, proiektua be-

rriri aztertu eta taberna handitzea erabaki dute. Aurreko proiektuko aldaketak mantendu egingo dituzte. Proiektu berria otsailean egongo da prest, eta udalbatzarretik igaro ostean hiru-lau hilabeteko epean lanak hastea aurreikusten dute.

Kontsultategia herrigunean

Mediku kontsultategi berria herriguneko lokal batean ipiniko

Proiektua udalbatzarrean onartu eta lanak hiru-lau hilabete barru hastea aurreikusten dute

dute. Lokal horretan obrak egingo dituzte, aireztapen sistema berria ipintzeko, besteak beste. Altzariak, ostera, gaur egungoak mantenduko dituzte. Kontsultategi zaharretik berrira eramango dituzte.

2021eko aurrekontuetan 87.000 euroko diru atala gorde dute egitasmoari ekiteko. Udaleko soberakina joko dute proiektuaren kostu osoa estaltzeko.

Asteon hasi dituzte zebrabidea egin eta semaforoak ipintzeko lanak Izurtzan



IZURTZA • J.D.

Izurtzan aste honetan hasi dituzte oinezkoentzat seguruago bihurtzeko eta ibilgailuen abiadura kontrolatzeko lanak.

Proiektu horren barruan, hiru semaforo berri ipiniko dituzte herrigunetik igarotzen den errepidean. Durango-Mañaria norabidean, Tabira inguruko biribilgunea pasatu ostean ipiniko dute lehenengo semaforoa, Izurtzako txaletak dauden zuzengunean. Bigarrena herrigunetik Antonio Txiki okindegira bitartean ipiniko dute, eta hirugarrena bihurtzaren ostean.

Semaforoak ipintzeaz gainera, espaloi zati bat ere egingo dute Durango-Mañaria norabideko ezkerreko aldean, herrigune ingurutik bihurtzaren bitartean, oinezkoen segurtasuna hobetzeko.

Otsailaren 8tik 12rako astean, Eibar klubak Mallabiko Kirol Hiriaren proiektua aurkeztuko die herritarrei

Mallabitarrek erakusten duten interesaren arabera, batzar bat baino gehiago antolatzeko asmoa dute



Besteak beste, bost futbol zelai handi egingo dituzte.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Eibar klubak Areitio egingo duen Kirol Hiriaren egitasmoa aurrera doa apurka. Legeak ezartzen duen pausoetariko bat herritarren artean gauzatu beharreko prozesu parte hartzailea da, eta otsailean egiteko asmoa dute; otsailaren 8tik 12ra arteko egunetan, hain zuzen ere.

Oraindino zehaztu barik dago batzar bakarra edo gehiago egingo dituzten. Izan ere, Kontzejuzarrean egingo dituzte batzarrak, baina COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, 25-30 lagunera mugatu dute aforoa. Beraz, zenbat batzar antolatu jakiteko, interesdunei aurretik izena emateko eskatu diete udaletik. Urtarrilaren 26a da horretarako azken eguna eta modu

bitara egin daiteke: udala@mallabia.eus helbide elektronikora idatzita edo 943 17 14 61 telefono zenbakira deituta. Interesaren arabera izango da batzar kopurua, eta per-

Batzarrean Eibar klubeko ordezkariak egongo dira eta herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango dute

tsiona bakoitzari adieraziko diote zein batzarretara joan daitekeen.

Batzarrean Eibar klubeko ordezkariak egongo dira Kirol Hiriaren gaineko xehetasunak ematen. Herritarrek aukera izango dute dudak argitzeko eta ekarpenak egiteko.

Koikili Lertxundi presidente izateko hautagai Euskadiko Futbol Federazioan

OTXANDIO • J.D.

Martxoaren 1ean Euskadiko Futbol Federazioko presidentea aukeratzeko hauteskundeak egingo dituzte eta presidente izateko hautagaietariko bat otxandiarra izango da: Koikili Lertxundi Athleticeko futbolari ohia eta enpresaria. Lertxundik sare sozialetan iragarri duenez, Bidean Team hautagaitzaren burua izango da. "Kirol eta bereziki futbol arloan esperientzia profesional handia duten kideez osatutako taldea gara", azaldu du, eta euren gidalerroan artean "euskara, aukera berdintasunaren aldeko konpromisoa eta gardentasuna" daude, besteak beste. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) kideak batu dituzte hautagaitzan.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

Mercadona katearen supermerkatua udan zabaldu gura dute Iurretan

Merkataritza-guneko arduradunen esanetan, datozen asteetan Mallabienan obrak martxan ipintzea aurreikusitako dute



IURRETA • A.B. / J.G.

Valentziako Mercadona supermerkatu kateak datozen asteetan hasiko ditu obrak Mallabiena auzoan duen orubean. "Data zehatz bat ematea gatz den arren, urteko hirugarren hiruhilekoan zabaltzea aurreikusten dugu", diote merkataritza-guneko arduradunek. Hain zuzen ere, proiektua udarako martxan izatea da Mercadonaren helburua. Inaki Totorikaguena Iurretako alkateak azaldu duenez, "udalean adminis-

trazio tramiteak amaituta daude. Badauzkate lizentziak eta beharrezko baimenak".

Lehenengoz Durangaldean

Supermerkatu hau Mercadonak Durangaldean martxan ipiniko duen lehenengoa izango da. Mallabienan kokatuta egongo da, beste supermerkatu kate batzuen inguruan. Aurretik, 2016an Abadiñon merkataritza-gunea eraikitzeke asmoa izan zuten, baina, azkenean, bertan behera utzi zuten.

Iurretan Laixiar irrati librea sortu dute Abadetxearen aterpean

Laixiar irrati librearen modu digitalean dihardu oraindik, eta hamar bat laguneko lantaldeak darama aurrera. Dagoeneko bost irratsaio aineratu dituzte, podcast formatuan



Argazkian, ezkerretik hasita, Irati Areitio, Maitane Totorika, Markel Onaindia, Asier Totorika, Asier Vera, Ander Duñabeitia eta Aimar Legorburu.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako hainbat gaztek Laixiar irrati librea ipini dute martxan, Abadetxeak ateak zabaldu ondoren piztutako ilusioak bultzatuta. Ondo pasatzea dute helburu nagusia, Ander Duñabeitia eta Aimar Legorburuk azaldu dutenez. "Laixiar lagunarteko irrati da. Lagun artean hasi zen, eta horrela jarraitzen dugu. Ondo pasatzea dugu helburu. Umoretik abiatuta, gure intereseko kontuak landu gura ditugu, Iurretakoak batez ere, eta Durangaldekoak ere bai", esan dute. Bosgarren irratsaioa aineratu dute, podcast formatuan, eta maiztasuna finkatzea dute epe laburrerako erronka nagusia.

Barikuro *Laixiartzen* magazina prestatu eta sareratu gura dute. "Era berean, bestelako saio berriak sortzen joango gara, ahal dugun

neurrian. Izan ere, ez dugu baliabide eta denbora askorik, eta osasun egoerak zuzenean eragin digu", argitu du Duñabeitia. Etorbizunari begira, antena bat lortu eta uhinen bitartez emititzea da Laixiar irratiaren erronkarik handiena.

Abadetxearen aterpean

Laixiar irratiak hamar bat laguneko lantaldea du atzean. "Etxeetan grabatu genituen lehenengo saioak. Orain, Abadetxean estudioa prestatu dugu eta bertan ekoiztu eta grabatzen dugu, ondo-

ren modu digitalean zabaltzeko", dio Legorburuk. Hala ere, maiztasuna finkatu ondoren, Abadetxetik zuzenean aineratzeko aukerak ere badabilta aztertzen.

Abadetxeak ateak zabaldua, 2016an sortutako proiektua berreskuratzeko eta forma emateko aukera ikusi zutela adierazi du Duñabeitia: "Lagunarteko zorakeria batean du sorburua Laixiar irratiak, eta beti egon da presente. Abadetxea berrituz zabaltzean, sasoi bateko gogoa eta ilusioa berpiztu zitzaizkigun". Gainera du herriari zabalik dagoen proiektua dela: "Librea da bere osotasunean, eta irratiaren parte hartu gura duenak gugana etortzea baino ez dauka". Laixiar irrati librearen izan duen *feed-back*-agaz pozik daude. Hainbat elkartasun mezu jaso dituztela esan dute, hainbat irrati libretatik eta Arrosa irrati saretik ere bai.

"Laixiar irrati librearen lagunarteko zorakeria batean du sorburua eta beti egon da presente"

"Elorrioko herritarren elkartasunak aurreikuspen guztiak gainditu ditu"

Elorrioko Udalak eta Zaintza Sareak elikagaiak biltzeko kanpaina egin dute. "Arrakastatsua" izan dela diote

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR


Elorrioko Udalak eta Zaintza Sareak elikagaiak biltzeko kanpaina antolatu zuten joan zen astebururako. Elorriarren erantzuna ikusita, biek "modu positiboan" baloratu dute urtarrilaren 15etik 16ra bitartean elikagaiak biltzeko egindako kanpaina.

"Elorriarrek erakutsi duten elkartasunak aurreikuspen guztiak gainditu ditu. Dohaintzak jaitsi daitezkeela uste duzunean, egoera inorentzat ez delako erraza, berbarik barik uzten zaituen herritarren erantzuna aurkitzen dugu", adierazi dute Elorrioko Udaleko kideek.

"Eskerrik asko, Elorrio. Beste behin ere, herri solidarioa garelako erakutsi dugu, eta horrek familia askori laguntzeko balioko du", jarraitu dute.

Elorrioko Zaintza Sarearen iritzian, kanpaina "arrakastatsua" izan da. "Aurreikuspenak nabarmen gainditu dira eta herritarrek buru-belarri murgildu dira elkartasun ekintzan. Erostea gomendatzen genituen elikagai eta produktu guztiak ekarri dituzte. Erantzuna oso positiboa da", azaldu dute Zaintza Sarekoek.

Orain, bildutako elikagai guztiak gehien behar dituzten pertsonen eta familien artean banatuko ditu Kainabera elkarteak.





Lapurak beheko solairuko kristala apurtuta sartu ziren eraikinean.

Zornotzako Munarri gaztetxean dirua eta materiala ostu dituztela salatu dute

Gaztetxeko kideen esanetan, "gaztetxeari lapurtzea herriari lapurtzea da". Joan den zapatuan izan zen lapurreta, gaeuz

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Munarri gaztetxean lapurretan egin dutela salatu dute bertako gazteek. Joan den zapatuan sartu ziren lapurrak eraikinean, beheko solairuko leihoa apurtuta. Bertan zegoen diru guztia eraman zuten eta baita gazteek eraikina atontzeko baliatzen duten materiala ere. Gaztetxeko kideek sare sozialetan zabaldu dutenez, lapurrek musika entzuteko bozgorailu handi bat, bi rotaflex-zerra eta zulagailu bat eraman zituzten bertatik.

Munarri gaztetxeko kideen esanetan, Zornotzan gertaturikoa ez da kasu isolatu bat. Azken boladan, beste hainbat gaztetxetan

antzerako erasoak gertatu direla salatu dute. Adibide modura ipini dituzte Portugaleteko Sastraka gaztetxearen aurka piztutako sutea, edo Durangoko Sorginolan eta Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean izandako lapurretak. Alde horretatik, "gaztetxeari lapurtzea herriari lapurtzea" dela adierazi dute Munarriko kideek. Erasoen gainetik, herri proiektuak garatzen jarraituko dutela adierazi dute, eta eskertu egin dituzte han-hemendik jasotako elkartasun mezuak.

Zornotzako Gazte Asanbladak Forjarien jauregia okupatu zuen iazko uztailean. Herritarrei begirako "proiektu sozial bat" garatzeari ekin zion orduko hartan.

Andra Mari ikastolako umeen artelanak Zelaieta zentroan ikusgai

ZORNOTZA • A.M.

Andra Mari ikastolako Haur Hezkuntzako umeen artelanak baliatuta, *Ttipia* izeneko erakusketa ipini dute martxan. Umeak Eider Eibar ilustratzailearen, Ainhoa Ortells margolariaren, Elena Mendizabal eskultorearen eta Eriz Moreno argazkilariaren adierazpide artistikoan oinarritu dira euren lanak sortzeko. Loraldia jaialdia da erakusketaren antolatzailea. Haren esanetan, "egitasmo honen bitartez, haurrak sentipenak adierazteko kulturak betetzen duen papez ohartu dira, eta erakargarritasun kulturalaren indarrak ere jabetu dira". Erakusketa urtarrilaren 30era arte egongo da ikusgai, Zelaieta zentroan.

Garaiko errematan 780 euro batu dituzte, ia iazkoan beste

Garaitarrek lehia bizia izan zuten baserriko produktuak eskuratzeko enkantean. "Jenero ona dagoenez gero, jendea ekin eta ekin aritzen da lehian", dio Mari Tere Ortuzarrek

GARAI • EKAITZ HERRERA

Porru eta txorizo sorta bat 27 euroan. Dozena erdi arrautza eta hiru ezti pototo txiki, 35ean. Beharbada prezio merkeagoan eskuratu ahalko dira herriko dendetan, baina Garaiko errematan gutxienezkoa da hori. Balio duena herritarren artean baserriko produktuak eskuratzeko sortzen den norgehiagoka da. Ateratako dirua elkartasun kausa baterako dela jakinda, are gehiago.

Garaitarrek joan zen domekan egin zuten San Anton eguneko

enkante tradizionala. Mordoxka bat garaitar joan ziren frontoira. Mari Tere Ortuzar izan zen eurtariko bat. "Jenero ona dagoenez gero, jendea ekin eta ekin aritzen da lehian, azken momentura arte. Hartu ditudan kiwiak badakit kalitate onekoak direna. Urteronator. Aurten, porruak, kiwiak, gazta, marmelada eta txorizoa eskuratu ditut", esan du.

Aurtengo errematan 780 euro batu dituzte (Iaz 800 batu zituzten). Batutako diruaren zati bat Caritasi emango diote.



Joan zen domekan egin zuten erremata.

m
Mondragon
Unibertsitatea



Gure ikasleen ahotan



"Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan komunikazioaren arlo desberdinak lantzeko aukera izan dut"

LEIRE MERINO (20 urte, Durango) Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 3. maila ikasten ari da, Aretxabaletako campusean.

Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Orain arteko ikasketak Durangoko Kurutzia Ikastolan eta Ibaizabal Ikastolan egin ditut. Txikitatik asko gustatu zait irakurtzea zein istorioak idaztea. Baina nire zaletasun nagusia moda da. Azken urte hauetan edertasun lehiaketen munduan aritu naiz, eta Miss World Gipuzkoa titulua eta nazio mailako lehiaketa batean hirugarren postua lortu ditut.

Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Gradu hau aukeratzeko orduan, ez nuen zalarrik izan. Izan ere, ni oso urdui jartzen nintzen azterketak egiterako orduan eta ez nuen ondo ikusten dena egun batean jokatu edo erakutsi beharra. Beraz, gradu honetan praktikotasuna eta lanen bitarteko dinamika nagusitzen zela ikusterakoan, oso argi izan nuen Mondragon Unibertsitatean ikasi nahi nuela.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia oso positiboa izan da.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Pertsonalki uste dut gehiago ikasten dela lan praktikoa eginez teoria edo azterketen bitartez baino.

Metodologia honek asko lagundu dit talde lanean ikasten. Izan ere, ideia ezberdinak dituzten ikasleekin lan egiten ikasteak asko laguntzen du etorkizun bati begira.

Unibertsitatez zer da gehien gustatzen zaizuna?

Fakultatea txikia denez eta jende asko biltzen ez garenez, irakasleen arreta zuzena ahalbidetzen du. Gainera, lanak egiteko materiala (kamerak, fokuak, mikrofonoak...) oso eskuragarri dago eta hau oso garrantzitsua iruditzen zait, pertsona guztiek ez dituztelako baliabide berdinak.

Etorkizunari buruz, zein da zure asmoa?

Nire asmoa kazetaritza munduan lan egitea da. Baina, esan beharra daukat, gradu honi esker ikus-entzunezko komunikazioetako arlo desberdin eta interesgarri ugari landu ahal izan ditugula.

Sukaldeak egingo dituzte Atxondoko eta Zaldibarko eskoletan eta Iurretako institutuan

Udan egingo dute Berton Bertokoa dinamikak hainbat bider aldarrikatutako eskaria



Gure Platera Gure Aukera.

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Gure Platera Gure Aukera elkarguneak jakinarazi duenez, uda honetan Durangaldeko hiru ikastetxe publikotako sukaldeak egingo dituzte. Sukaldeak egitea Berton Bertokoa dinamikak hainbat bider aldarrikatutako eskarietariko bat da.

Gure Platera Gure Aukera ekimenaren helburua egungo eskolajantokien eredia aldatzea da, eta hezkuntza-komunitateko, lehenengo sektoreko eta gizarteko hainbat elkarte, sindikatu eta eragileren atxikimendua du.

Elkarguneko webgunean iragarri dutenez, uda honetan Durangaldeko hiru ikastetxe publikotako sukaldeak egingo dituzte, Atxondoko eta Zaldibarko eskoletakoak, eta Iurretako Juan de Orobiogitia institutukoak, hain zuzen ere. Durangoko Zabalarra eskolako 2022ko udan egingo dute.

Momentu honetan, lau ikastetxeak fase desberdinetan daude: proiektua idazten, kontratatzen edo gainbegiratzten. Oporraldia aprobetxatuko dute obrak egiteko, webgunean informatu dutenez.

Beste ikastetxe batzuk

Beste ikastetxe batzuetako egoeraren berri ere eman dute. Sukaldearen lehenengo proiektua ezagutzen dute. Eta Lantziego ikastolan Haur Hezkuntzako eraikin berriak espazioa izango du sukalde egiteko.

Politikan

Mariam Bilbatua
EH-Bildu



PLATERUENA

2020a Plateruenaren proiektuari egindako agur ekitaldiekin amaitu bagenuen ere, urte berriaren hasieratik lanean jarraitzen dugu Plateruenak euskarari eta euskal kulturari egindako ekarpenari jarraipen berritua emango dion proiektua diseinatzeko.

EH Bilduko zinegotzi gisa, prozesuaren norabidearen inguruko zenbait gogoeta plazaratu nahi ditut gaurko zutabearen:

- Durangon kultur ehun garrantzitsua dugu: arlo askotako sortzaileak, arlo desberdinetan lanean ari diren kultur taldeak, Udalak kudeatzen dituen kultur baliabideak. Guztien beharrik eta ekarpenak jasoko duen prozesu parte hartzailea ezinbestekoa izango da Plateruenaren etorkizuna irudikatzen.

- Kulturaren kontsumotik haratago, proiektu berriak ondoko printzipioak bermatu beharko ditu: kulturaz bizitzeko eta gozatzeko espazioa izatea, sorkuntza eta transmisioa bermatzea, adin desberdinetako beharrei erantzutea.

- Kultura jendartearen kohesio eta integrazio tresna izanik. Durangoko gizarte anitzaren elkarbizitzarako baliagarria izango den espazioa bete beharko lituzkeen baldintzak eta parte hartzea bermatzeko bideak aurre ikusi.

- Herritarron, herri mugimendu eta erakunde publikoen babesaren izango duen proiektua behar du izan. Parte hartzea bermatuko duena eta, aldi berean, ekonomikoki bideragarria izango dena. Alor desberdinetan garatzen ari diren kudeaketa publiko-komunitario-kooperatiboen ereduaren aurki ditzakegu baliagarriak egingo zaizkigun erreferenteak.

Durangaldea asteen

Urkiola garbitzen laguntzeko deialdia egin dute parke naturaletik astebururako

Abadiño | Azken elurteen ostean Urkiola "zaborrez beteta" dagoela salatu dute parke naturaletik. Hori konpontzeko, laguntza eskatu dute. Gaurko eta domekarako egin dituzte garbitzen laguntzeko deialdiak. Izena emateko, 94 681 41 55 telefono zenbakira deitu behar da edo urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus helbidera idatzi behar da.

Berbaldiak eskualdeko gazteentzat Gaztedi Durangaldea programari eskerrak

Durangaldea | Bizkaiko Foru Aldundiak eta Durangaldeko udalek sustatutako programak eskualdeko gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen berbaldiak eskainiko ditu. Bata etorkizuneko espektatibek eragiten dituzten emozioen ingurukoa izango da. Bestean, elikadurak eta osasunak duten loturaren inguruan jardungo dute.

Iurretarek taxi-auzune zerbitzua erabiltzeko txartela berriztu beharko dute

Iurreta | Taxi-auzune zerbitzua erabili gura duten herritarrek Iurretako Udalak emandako erabiltzaile txartel berria aurkeztu beharko diote taxi gidariari. Txartela urtarrilaren 31 baino lehen berriztu beharko da. Zerbitzua astelehenetik barikura erabili daiteke, 07:30etik 20:00etara. Zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara. Euro bi ordaindu beharko da zerbitzua.



Azken orduko aldaketarik ezean greba mugagabeari ekingo diote Plastibor enpresan

Durangaldea | Azken orduko aldaketarik ezean, Zornotzako Plastibor enpresan greba mugagabeari ekingo diote domekan, urtarrilaren 24an. Urtarrilaren 11tik, Zornotzan mobilizazioak egiten dabilta lan hitzarmen duin bat izateko. "Hitzarmenaren negoziazioa guztiz blokeatuta dago", azaldu dute LAB sindikatuko kideek.

111 langile daude Plastiborren, eta honako hau da ordezkaritza sindikala: LABeko 7, ELAko 1 eta CCOOko 1.


Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión

BURUARI KLIK!




DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zazpi diferentziak.




MARGOTU

Margotu mandala hau gura duzun moduan.




—ALTXORRAREN BILA—

Beheko mapari begiratuta, zein irlatan esango zenuke dagoela ezkutatuta altxorra?




DOMINOA

Marrastu dagokion
irudia lauki zurietan.



ITZALAK

Zein itzal dagokio?




LABIRINTOIA




ITZALAK

Itsasontzi bakoitzari bere itzala dagokio.



DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zazpi diferentziak.



GALDERAK ERANTZUN

1.- Zenbat pertsona daude kontzertua ikusten?

2.- Zenbat pertsona daude zutunik? Eta eserita?

3.- Zenbat instrumentu daude taula gainean? Zeintzuk?





ANDRAMARI

ZORNOTZAKO IKASTOLA

IKASLEA, PROTAGONISTA NAGUSIA

Ikaslea da protagonista nagusia Andramari Zornotzako Ikastolan. Haren ongizatea bilatzen dute uneoro, garapen integrala, osoa eta orekatua lantzea eta lortzea izanik helburua.

Andramari Zornotzako Ikastolan ikaslea da bere heziketa prozesuko protagonista nagusia. Horrela, haren ongizatea bilatzen dute uneoro garapen integrala, osoa eta orekatua (kognitiboa eta emozionala) lantzea eta lortzea izanik helburua.

Ikastolako familiak eta langileak, helduak, haurren eta nerabeen bidelagunak dira eta, bakoitzaren erritmoa errespetatuz, 0 eta 18 urte bitarteko bidaia, heziketa, garatzen laguntzen diete.

HAZIA

Azken urteotan Haur Hezkuntzarako (0-6 urte) marko pedagogiko berria eta propioa sortzen buru-belarri aritu dira, eta Hazia proiektua sortu dute. Hazia proiektuak haurren erritmo biologiko-kognitibo eta emozionalak errespetatu eta kontuan hartzen ditu. Horrela, haurrak berez dituen gaitasunak eta jokabideak identifikatu eta hauek era positibo batean garatzen laguntzen diete ikastolan, bere buruarengan eta ingurukoengan konfiantza garatuz, pertsona kompetente, osoa eta zoriontsua izateko.

Horrela, umeak emozionalki ere adimentsuak izateko, ikasturte honetan Kuku! emozio programa jarri dute martxan ahozotasunean oinarrituz, oinarritzko emozioak landu, norberarenak ezagutu eta kudeatu eta besteak hobeto ulertzen hasteko testuinguru aberats eta aproposak eskainiz.



KIMU

HHn egindako lanari jarraipena emanez, LHko marko pedagogikoaren lanketan ere lehen pausoak ematen aritu dira, eta aurten lehenengoz, LHko 1. mailan, Ikastolen Elkarteko Kimu proiektua txertatu dute, ikasleen oinarritzko kompetentziak garatzea helburu izanik.

Horretarako, ikasleek hurbileko testuinguru errealean, erronka desberdinei aurre eginez, jolasaren eta manipulazioaren bitartez ikasten dute matematika, hizkuntza...

ADIMEN EMOSIONALA

Egun bereziki, ezinbestekoa da norbere bizipenak ezagutzen eta kudeatzen jakitea egunerokotasunari modu indartsu batean aurre egin ahal izateko.

Azken urteotan gizarteak orokorrean izandako aldaketari erantzun egokia eman nahian, Andramari

Zornotzako Ikastolan ikasle, familia eta irakasleentzako laguntza departamentua indartu dute, Hezkuntza Psikologo baten figurarekin.

Egungo familia-ereduen aldaketa, harremantzeko bideen aldaketa, etengabeko komunikazioak...honek guztiak txiki eta nerabeekiko presioa areagotu du ondorio zuzenak izan dituelarik hauen izaera, sentimentu eta bizipenetan.

Horrez gain, orientazioa ere indartu izan da, ikasleei DBH amaitu eta gero zein ibilbide jarraitu erabakitzen laguntzeko. Horrela, Batxilergoko jarraipena Durangoko Ibaizabal ikastolan dute Andramari Zornotzako Ikastolako ikasleek.

HAINBAT ERRONKA:

Hobekuntza Pedagogiko Iraunkorra:

Izenak berak adierazten duen bezala, Hobekuntza Pedagogiko Iraunkorra (HPI) ez da bere horretan helmuga jakin bat, ez da lortu eta atzean uzten den helburu bat. Guztiz bestela, HPI lan egiteko modu iraunkorra da, abian jarri eta betiko ezarriko dena, Ikastolan eskaintzen dugun irakaskuntzaren kalitatea eta koherentzia bermatzeko.

Euskara

Egungo pandemiak bereziki kaltetu du gure hizkuntza, euskara, eta aurten arreta bereziarekin lantzen dute ikastolan. Horrez gain, eleaniztasuna ezin da iparretik desbideratu, eta euskara eta gaztelaniaz gain, ingelesa jorratzen dute hirugarren hizkuntza gisa, eta laugarren hizkuntza, frantsesa, aukeran dute. Horrela, ikastolaren hizkuntz proiektua euskararen oinarrituta dago, lau hizkuntza uztartuta.

Jasangarritasuna

Ikastolan, Eskola Jasangarriaren aintzatespena aspaldi jasota, jasangarritasunaren alde ere pausoak ematen ari dira etengabe. Andramari Zornotzako Ikastolak bere egin ditu Agenda 2030en baitan Nazio Batuen Erakundeak finkatutako Garapen Iraunkorrerako Helburuak, eta ildo horretan jarduteko konpromisoari eusten dio, orain arte eutsi izan dion bezala. Izan ere, komenigarria da gogoraraztea Iraunkortasunerako Eskola Errekonozimendua lortu zuela Agenda 2021en testuinguruan, eta horri esker lortu zuela "Iraunkortasunerako Eskolen Sarean" (IRAES delakoan) egotea.

Elkarbizitza

Halaber, ikastolako eguneroko elkarbizitzari dagokion giro osasuntsua funtsezko arloa da ikastolan, horretarako bulling-aren prebentziorako KIVA programa erabiltzen dutelarik.


Programa honi esker, bizikidetzako egoera latz hauek gutxitu egin dira. Zuzendariaren hitzetan, "gure ikasleek zer onartu daitekeen eta zer ez ikasi dute. Lagunak babesten eta bidegabekeriaren aurrean planto egiten".

Irakasleek eurek ere erosoago lan egiten dute, edozein zalantzaren aurrean nola erantzun behar duten baitakite.

Elikadura

Ikaslearen hazkunde prozesuan bere osotasunean laguntzeko, elikadura ere arlo garrantzitsu bat dela ez da ahaztu behar.

Horren harira, bazkal ondorengo tartetean jolas eta tailer bidez arlo emozionalari dagokion hainbeste esparru lantzeaz gain, menuari dagokionez garrantzitsua deritzogu bertako ekoizleen produktuak eta sasoikoak erabiltzea ikastolako jakiak prestatzeko. Janaria ikastolan bertan prestatutakoa da eta, ahal den heinean, ekologikoa.



MATRIKULAZIOA ZABALIK

Urtarrilaren 18tik 29ra

ATE IREKIAK

Urtarrilak 16

(0-6 urte arteko haurrentzat 10:00etan eta 12:00etan, eta 6-18 urte artekoentzat 11:00etan.)
Umeen zaintza ere eskainiko da

Izena emateko:



94 673 29 50 edo zornotza@ikastola.eus



'Pinocchio'

ANTZERKIA DURANGO :: Urtarrilak 24

Pinocchioren istorioa Gorakada konpainiaren eskutik

Naturaren indarraren isla da Pinocchio. Pragmatikoa eta bihurria, eta, aldi berean, azkarra eta sanoa. Gizarteagaz guztiz bat egiteak ez du bete-betean aseko, eta borrokan jardun beharko du bere buruagaz eta ikasteko asko duen gizarteagaz. *Pinocchio* egur zati ba-

ten istorioa da, maitagarrien mundua hankaz gora ipintzen duen istorioa. Fabula, nobela pikaresko eta maitagarri ipuinen nahasketa bikaina. Gorakadak emanaldi bi eskainiko ditu, domekan, San Agustin kulturgunean: 12:30ean eta 18:30ean.

Urtarrilaren 22an

ZALDIBAR ikastaroa
'Josketa sortzailea'
ikastaroa,
16:30ean, udal liburutegian. Izena eman behar da. Otsailaren 26an ikastaroaren bigarren saioa egingo dute.

ZORNOTZA musika
Maria Vaquerizo,
19:00etan, Zelaieta Zentroko kontzertu gelan.

Urtarrilaren 23an

ABADIÑO antzerkia
'Porno vs Afrodita (Edo I love #gorkaurbizu)'
(Benetan Be), 19:00etan, Errota kultur etxean. Sarrerak Errotan bertan eta Udal Mediatekan.

BERRIZ Ikusentzunekoa
'Oymyakon. Habitación 101' (Khea Ziater), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ZORNOTZA antzerkia
'Kaskarot' (Atx Teatro), 18:00etan, Zornotza Aretoan.

Urtarrilaren 24an

ABADIÑO zinema
'Verano del 85', 19:00etan, Errota kultur etxean. Sarrerak Errotan bertan eta Udal Mediatekan.

Urtarrilaren 26an

ZORNOTZA zinekluba
'Beginning', 19:00etan, Zornotza Aretoan. Filma jatorrizko bertsoan eskainiko dute.

Urtarrilaren 27an

DURANGALDEA berbaldia
'Zer emozio agertzen zaigu etorkizunera begiratzen dugunean?', Berbaldia telematikoa izango da, 18:00etan. Urtarrilaren 26ra arte eman daiteke izena *behargintza*. mdurango@bizkaia.org e-mailera idatzita edo 94 623 25 22 telefono zenbakira deituta. Gaztedi Durangaldea proiektuaren barruan antolatutako berbaldiak eskualdeko gazteei zuzenduta.

Urtarrilaren 29an

ELORRIO antzerkia
'La Isla' (Histrión Teatro), 19:00etan, Arriola antzokian.

Urtarrilaren 30ean

ZORNOTZA antzerkia
'Alpha' (Ganso&Cia Konpainia), 18:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 6an

DURANGO dantza
'Burdina-Hierro' (Adriana Bilbao eta Beñat Achiary), 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Dantza eta musika ikuskizuna.

ZORNOTZA antzerkia
'Sagutxo tuntuna', 18:00etan, Zornotza Aretoan. 2tik 6 urtera arteko umeei zuzendutako ikuskizuna.

Martxoaren 14ra arte

DURANGO erakusketa
'Alegiazko paisaiak eta ironiaren irudiak' (Ramon Zuriarrainen margolanak), Arte eta Historia Museoan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Perfumes**
barikua 22: 19:00
domeka 24: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Hope**
barikua 22: 18:45
zapateria 23: 18:45
domeka 24: 18:45
astelehena 25: 18:30
martitzena 26: 18:30
eguztzena 27: 18:00

• **23 Paseos**
barikua 22: 18:45
zapateria 23: 18:45
domeka 24: 18:45
astelehena 25: 18:30
martitzena 26: 18:30
eguztzena 27: 18:00

• **Elfkinak**
zapateria 23: 17:00
domeka 24: 17:00

• **Las crónicas de fabulandia**
zapateria 23: 17:00
domeka 24: 17:00

• **Ipuin-Herriko Berriak**
zapateria 23: 17:00
domeka 24: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Sin señas particulares**
zapateria 23: 19:00
domeka 24: 19:00
astelehena 25: 19:00

• **Los Croods: una nueva era**
domeka 24: 16:00

:: Zornotza ARETOA

• **Nieva en Benidorm**
barikua 22: 19:00
domeka 24: 19:00
astelehena 25: 19:00

• **Manou**
domeka 24: 12:00 (euskaraz)





Hemen eta online



Sartu anboto.org-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu




Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira anboto.org-en



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA / NEGOZIOAK
- DENERIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA / KIROLA
- FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

“Proiektu berriak sendoa izan behar du, herritarrik gehienek bere sentitu behar dute”

Herritar talde batek lan saio parte hartailera deitu du otsailaren 6rako Plateruenaren gainean hausnartzeko



PLATERUENA • E.H.
Urte hasieran, herritar talde batek 'Plateruena ta gero zer?' dinamika aurkeztu zuen. Taldea Plateruena kudeatzeko proposamen bat lantzen dabil, gero Durangoko Udalari aurkezteko, eta hausnarketa kolektiborako deia egin dute ekarpenak jaso eta proiektu parte hartzailea gauzatzeko. **Aritz Lasarguren eta Maitane Serrano talde horretako kideak dira.**

Zein da Plateruenerako proposamen berri horren funtsa?

Maitane Serrano: Plateruena kultur gune lez ikusten dugu, Kafe Antzoki eredu alde batera utzita. Taberna bat izatetik, sorkuntzara-

ko eta kultur bizitzarako espazio bihurtu gura dugu. Ikusle moduan ez ezik, kultur sorkuntzan hezteko gune bat izatea gura genuke. Asteburuetan kultur ikuskizunak egingo lirateke, orain arteko moduan, baina aste bitartean sortzaileentzako espazio lez erabili ahalko litzateke, erresidentzia artistiko lez, tailerrak edo ikastaroak egiteko. Sorkuntzaren kultura bat piztu gura dugu, hemendik urte batzuetara durangarrek kulturagaz duten hartu-eman bestea era batekoa izan dadin, herri kulturzaleagoa eta sortzaileagoa izan dezagun.

Aritz Lasarguren: Funtsean, zerbitzu publikoa emateko bokazioa lukeen proiektua. Kultura jaso edo kontsu-

mitu bakarrik ez, sormena landu eta garatzeko espazioak behar ditu Durangok, eta, horretarako, inbertsio publiko bat behar da. Durangon baditugu beste espazio batzuk kulturako beste esparru batzuetara bideratuta: San Agustin, museoa, musika eskola, liburutegia... Eragile horien guztien arteko elkarlana beharrezkoa da, gainera, herri ikuspegia eduki eta elkar elikatzen.

Nortzuk zarete dinamika honen bul-tzatzaileak?

A.L.: Azken urteetan Plateruenerako kultur gintzako taldean aritu dira gutariko batzuk; herrigintzan edo kultur gintzan aritutako durangarrek ere batu gara.

M.S.: Platerueneraren itxierak ba-

tu gaitu. Kezka konpartitu hori genuen eta dugu. Bigarrenez zabaltzeko ideia buruan eduki dugu bueltaka, eta hori zelan gauzatu ahalko litzatekeen pentsatzen hasi ginen oinarri bat hartuta: proiektuak zabala eta parte hartzailea izan beharko du. Guk ideia batzuk ditugu, baina proiektu honetara ahalik eta durangarrik gehien batzea da dinamika honen helburua, Plateruena berriaren ekarpena ahalik eta handiena izateko.

Harremantze bira ere abiatu duzue horretarako.

M.S.: Orain arte dozenaka elkar-te, talde eta norbanakogaz batu gara kezkak, iritziak eta asmoak partekatzen. Baina gure asmoa

Durangoko ahalik eta kultur talde, eragile edo norbanakorik gehienekin batzea da, proiektua ahalik eta ondoen osatzeko.

A.L.: Durangoko kultur taldeen zerrenda luzea da eta, hasteko, orain arte Platerueneragaz hartu-emanik estuena izan dutenekin batu gara: kultur, antzerki eta dantza taldeekin, literatura lantzen dutenekin, euskalgintzako eragileekin...

Otsailaren 6rako lan saio parte hartzaileera deitu duzue.

A.L.: Lan saioan, garatzen gabiltzan proiektuaren oinarriak azalduko dizkiegu bertaratutakoei, euren ekarpenak jasotzeko asmoagaz. Hortik aurrera, hausnarketa nagusi hauek egin gura genituzke: Zer behar izan ditu Durangok kultura arloan? Zertarako balio dezake Plateruenera?

“

Kontsumitzeko bakarrik ez, sormena lantzeko eta garatzeko espazioak behar ditu Durangok”

”

M.S.: Plateruena ta gero zer? dinamikan parte hartzeko aukera desberdinak egotea gura genuen. Bakoi-tzaren aukerak desberdinak dira, eta egungo osasun larrialdi egoeran planteamendu guztiak kontuan izatera garamatza. Otsailaren 6ko saioa erreminta horietariko bat da. Bertan, aurrez aurre konpartituko ditugu lehen aipaturiko hausnarketak. Hala ere, proiektuagazko atxikipena duen orok egin dezake ekarpena plateruenera@gmail.com helbidean.

A.L.: Argi dago Plateruena ahalik eta lasterren berriro zabalik egotea gura genukeela. Dena dela, proposatzen dugun proiektuak sendoa izan behar du, eta ahalik eta herritarrik gehienek bere sentitu behar dute; proiektuak guztion ekarpenagaz egingo du aurrera. Zimenduak ipintzen gabiltza eta oinarri indartsu bat edukitzea ezinbestekoa da proiektuak aurrera egiteko. Lan handia dugu aurretik.

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

hitz liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^{er} DENDAOSTEKOAK Uxue Alberdi (Susa)

2^{er} JOSEBA SARRIONANDIA Gauzak direna balira (Pamiela)

3^{er} Etxeko landareak Jakoba Errekondo (Argia)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

“Entzun gura genukeen musika egiten ahalegintzen gara”

'Oihu ezkutuak' kaleratu berrikan, 26:11 rock talde durangarra beste lan batean murgilduta dago; gaur egun bizi dugun sasoiaren sortze prozesuetan sakontzeko aukera lez ikusten dute

MUSIKA • A.M.

26:11 [Hogeita sei hamaika] talde durangarrak lau abestiko 'Oihu ezkutuak' lana kaleratu zuen abenduan. 2018ko hondarretan ipini zuten taldea martxan Enekok (ahotsak), Santik (baxua eta teklatura), Mikelek (bateria) eta Victorrek eta Gorkak (gitarra). Egun, Imanol Erdoizak jotzen du bateria.

Non eta zelan grabatu zenuten 'Oihu ezkutuak'?

Iazko itxialdian hasi ginen EPa lantzen. Uda amaiera aldera amaitu genuen konposaketa. Pistarik gehienak etxean grabatu genituen, eta gainerakoak Durangoko gaztetxeke musika gelan.

'Arima' abestirako, doinu leunagoak aukeratu dituzue. Zein talde edo doinu dituzue gustukoak?

Orain artean egin dugun kanturik lasaiena izan da; gogoia genuen balada tankerako zerbaite egiteko. Musika talde asko ditugu gustuko. Inguruko bi aipatzearen, Berri Txarrak eta Su Ta Gar. Taldekide bakoitzak bere gogoko estiloak entzuten ditu eta hainbat errefe-

rente dugu: Metallica, Paramore, Anti-Flag, Coldrain, Led Zeppelin... Estilo aldetik, rocka, metala eta eratorriak dira eraginik nabarienenak, baina elektronika, reggaea eta jazz ere gogoko ditugu, besteak beste. **Zelan definituko zenukete zuen musika?**

Jendeak dio rock gogorra edo punk rocka egiten dugula, baina guk ez dugu argi oraindik. Gogoko dugun musika egiten ahalegintzen gara, entzun gura genukeen musika egiten dugu.

Nondik dator taldearen izena?

Entsegu gela zaharretariko batean The Beatlesen egutegia genuen, eta bertan 26:67 zenbakia ageri zen. Zenbakiekin eta ahoskeragaz joko batzuk egin genituen, eta izena 26:11 izatea erabaki genuen. Gero konturatu ginen taldearen izenaren sortze datagaz bat zetorrela, gainera.

Zelakoa izan da 'Sapuek eta sugiek' bilduman parte hartzea?

Oso aberasgarria. Durangaldeko beste taldeek egiten dutena ezagutzeko eta eszena musikal bat sortzen hasteko aukera izan dugu. Ez



da gutxi, talderik gehienak berriak garelako kontuan hartuta. Diskoaren bitartez, sortzaile berriak ezagutu ditugu, baita gure bateria-jotzaile berria den Imanol ere. Parkatu taldekoei lan honetan parte hartzeko proposamena egitea eskertu gura genieke.

Zein da hemendik aurrerako plana?

Une honetan, EP berri batean lanean gabilta. Ez dugu kalera tze datarik, baina laster gauza berriak aurkeztuko ditugu. Kontzerturen bat antolatzea pentsatu dugu, baina egungo egoeragaz ez dakigu posible izango den;

bien bitartean, gogor ekingo diegu entseguari. Bizitzan gabiltzan egoera arraro hau aparteko aukera lez ikusten dugu gauza berriak probatzeko eta musika estilo desberdinekin esperimentatzeko, sortze prozesu luzeagoak dauzkagulako.

Gai librean

Zientzia eta egia

Eztabaida zientifikoak akademiako dorre hermetikoetatik lehorrera jaitsi dira hilabete pandemiko hauetan. Bada, birusaren transmisio bideen edota txertoen eraginkortasunaren inguruko datuen bonbardaketa masiboa jaso dugu. Alde horretatik, askorentzat ulergaitzak izan dira zientzialari adituen artean sortutako iritzi aldaketak eta desadostasunak. Ez al zen zientzia izate neutro eta guztiz arrazional bat?

Hasteko, zientziaren historiari erreparatuta, Aristotelesetik Einsteinera, argi ikus daiteke ezagutza behin betikoa ez dela. Izan ere, kritika zorrotzari, ideien konfrontazioari eta ebidentzia enpirikoei esker etengabe aldatuz doa. Horregatik, egungo ikerketaren abangoardia guneetan desadostasuna sor-



Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria

Egungo ikerketaren abangoardia guneetan desadostasuna sortzea arrotza baino, logikoa da

Ez dezagun ahaztu jarduera zientifikoaren testuinguru soziopolitiko konkretu batean gauzatzen dela

tzea, arrotza baino, guztiz logikoa da. Halaxe izan beharko litzateke.

Bestalde, zientzia gizakiaren produktu bat da, gure muga arrazional eta existentzial guztiekin. Gainera, ez dezagun ahaztu jarduera zientifikoaren testuinguru soziopolitiko konkretu batean gauzatzen dela, bere kontraesan, interes partikular eta hutsune larrien pean.

Hala ere, honek guztiak ez du esan nahi zientzia gizakiak bere ingurua ulertzeko duen tresna ahaltsuena ez denik. Ezin da erlatibismo absolutua bersarkatu. Denak ez du balio. Are gehiago, zalantza ikerketa zientifikoaren eguneroko praktika inguratzen badu ere, ezbaia guztiz beharrezkoa da fundamentalismoa alde batera uzteko, aurkikuntzak absolutuak ez direla gogorarazteko eta ezagutza zientifikoaren kritika eta mugimendu etengabe mantentzeko.



Beñat Intxausti Elorriaga
Eiser-Hirumet taldeko zuzendaria
Muxika | 1986

Neuk ere ez dakit oraindino zela-koa izango naizen. Hasieran be-roa izango naizela uste dut, dela urduritasunagaitik dela ilusio eta gogoagaitik... Beharbada lasaitu egin beharko dut apurtxo bat. Neure burua laguntzaile moduan ikusten dut, psikologo moduan. Sarritan, entrenatzaile bati psikologo lana egitea egokitzen zaio, txirrindulari bakoitza pertsona bat delako. Batzuetan gomendio on batek entrenamendu batek baino eragin handiago izaten du txirrindulari batengan. Neure ibilbidean sentitu, ikusi eta ikasi dudana gazteei erakustea izango da helburua.

Memoria ariketa bat eginda, zela-koa zinen zu euren adinean?

Txirrindularitza ez nuen ogibide moduan ikusten orduan. Gehiago zen zaletasun bat. Denerik bizi izan nuen: lasterketetan lan ona egiten nuenean pozik egoten nintzen, eta txarto egiten nuenean entrenatzailearen errieta entzun, burua makurtu eta ikastea egokitzen zitzaidan, hurrengoan hobeto egiteko. Akatsetatik ikastea oso garrantzitsua da.

Zein izango da urteko egutegia?

Une honetan zalantza asko dago. Otsail-martxoko lasterketa asko ez dakigu egingo diren. Karrera batzuk egingo diren herrietan, esaterako, konfinatuta daude. Gainera, Nafarroako Itzulia eta beste hitzordu garrantzitsu batzuk bertan behera geratu dira. Denerik dago eta egoera aldatu egiten da astetik atera. Une honetan ez dakigu seguru noiz hasi ahalko dugun denboraldia.

“Neure burua laguntzaile moduan ikusten dut; sarritan, entrenatzaile bati psikologo lana egitea egokitzen zaio”

Ibilbide profesional luze eta oparoan pilotutako esperientzia eta jakintza Eiser-Hirumeten zerbitzura ipini ditu Beñat Intxausti taldeko zuzendari berriak; gaur egungo egoera dela-eta, ez daki seguru denboraldia noiz hasiko duten eta egutegia zehaztu barik dute

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Txirrindularitza profesionala utzi eta urtebetera, bere kirol ibilbideko etapa berri bati ekin dio Beñat Intxaustik. Errepidera bueltatuko da, baina, kasu honetan, bizikleta gainean barik, zuzendari lanetan arituko da. 23 urtez azpiko Eiser-Hirumet taldearen gidaritza hartu du. Duranguesa txirrindulari elkarteak eta Punta Galea elkarteak elkarlanean ateratako taldean 17 ziklista gazte batzen dira.

Zelan izan da zure fitxaketa?

Orain hilabete, taldekoak nigaz hartu-emanetan ipini eta ni taldera batzeko proposatu zidaten. Baiezkoa eman aurretik, buelta asko eman zenizkion gaiari?

Bai eta ez. Alde batetik, aita izan berri naiz eta arlo pertsonalean ez nau momenturik erosoenean harrrapatu. Baina, beste alde batetik, ilusio itzela egiten zidan bertoko talde gazte batez lan egiteak. Gainera, bai Duranguesako eta bai Punta Galeako arduradunak ezagutzen ditut eta hartu-eman ona dut eurekin. Egia esanda, gustura eman nuen baietza eta ilusioz nago. **Lehenengo esperientzia izango duzu zuzendari kargu batean?** Bai. Txirrindularitza utzi osteko

urtea apur bat lasai hartu nuen. Afizionatu mailako talde batez lanean aritu naiz, baina ez barrubarruan sartuta.

Ez da berdina zaildutako txirrindulariak entrenatzea edo oraindino zailtzen ari direnekin lan egitea. Non egongo da exijentzia maila?

23 urtez azpiko gazteak dira eta etorkizunean profesional mailako txirrindulariak izan gura badute gauzak ondo egin behar dira behin 18 urtetik aurrera. Kirol exijentea da eta denean exijitu behar zaie: entrenamenduetan, elikaduran... gero lasterketetan errendimendua izateko. Horregaz batera, txirrindularitza kirol berezia da, jakina: batek irabazten du, baina talde lanaren saria izaten da. Horrelako balioak ere erakutsi behar zizkie gazteei. Hori dena aurrera eramatea nire ardura izango da; nirea eta Alain Ramirez [jazko zuzendaria] laguntzailearena.

Ramirez aurretik ezagutzen zenuen?

Ez, oraintxe ezagutu dut, taldera batu naizenean, eta oso hartu-eman ona izan dugu. Bion artean taldea aurrera eramateko erantzukizuna izango dugu.

17 txirrindulari izango dituzu zure agindupean. Zelakoa izan da lehenengo kontaktua eurekin?

Oraingoz ez dut eurak ondo ezagutzeko aukerarik izan. Orain arte bi-hiru entrenamendu baino ez ditugu egin. Gainera, bizi dugun egoera dela-eta, zoritxarrez ezin izan dugu bilera presentzialik egin eta bideokonferentzia bidez egon gara. Denboraldia hasi aurretik hartu-eman hori sendotzea da helburua: euren *feedbacka* jasotze-

ko eta eurek nire filosofia edo lan egiteko modua ezagutzeko. Gaur egun indarrean dagoen araudiagaz ez da erraza, baina, araudia beteta, horixe landu behar dugu hurrengo asteetan.

Zure txirrindularitza-ibilbide luze eta oparoan aginduak hartzea egokitu zaizu. Orain hesiaren beste aldean zaude. Zelakoa da Beñat Intxausti agintzen?



Joan zen zapatu goizean denboraldiko bigarren entrenamendu saioa egin zuten.

DURANGALDE



Errekaundin zehar

Arrazolako plazatik irten eta Atxeko zein Agarre baserrietatik gora joanda bide zoragarri batean sartuko gara. Errekaundi erreken ondotik doan bideari jarraituta, pagadi eder batera helduko gara. Eta bertatik Andastoko tontorrera (822 metro).

KO TXOKOAK!


Larringango haize errota

Mendiolako San Kristobal ermitatik gora doan bideari jarraituta, Larringango haize errotara ailegatzen da. 1723. urteko sikatean eraiki zuten, arto-gariak ehotzeko, baina badirudi ez zela sekula martxan ipini





merkataritza gida sarean



anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Zorion Agurrak ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Zorixonak, **Xuban** eta **Katrin**. Joan zan astean lau eta zortzi urte egin zenduezan. Jarraitu hain jator. Pilo pilo bat maite zaituegu etxeko danok. Mua!



Zorionak, enana! Disfratatu zure egunaz! Musu handi bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Uxue**! Egun ederra euki. Asko maite zaitugu! Muxu erraldoi bat etxeko-koen partez.

Botikak

BARIKUA, 22 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 23 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - DURANGO

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - IURRETA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 24 - 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 25 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 26 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - IURRETA

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 27 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 28 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA MURUETATORRE
2C - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 12° / 7° ☁

ASTELEHENA ↓ 10° / 6° ☁

EGUAZTENA ↓ 16° / 10° ☁

DOMEKA ↓ 11° / 11° ☁

MARTITZENA ↓ 13° / 9° ☁

EGUENA ↓ 15° / 9° ☁

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuen, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

“Gure muga mentalak gainditzen, apurtzen, ahalegindu gura dugu”

Jon Gorroñok eta Rossana Ortuzarrek egunerokoan sortu daitezkeen arazoei irtenbide kretiboak ematen laguntzeko tresna sortu dute: Kreos karta jokoa



Jon Gorroño Zugaza (1980) eta Rossana Ortuzar Zuñiga (1979)
Kreos-en sortzaileak
Durango

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango Hitz eta Urrike liburudendetan eskuratu daiteke Kreos karta jokoa, gaztelaniaz. Dena dela, euskarazko formatua labatik noiz aterako zain daudela azaldu dute. Jonek eta Rossanak produktu digitalak diseinatu, garatu eta kudeatzen dituzte. Irakaskuntza birtualeko plataforma batean lanean dabilta orain. Interneten bitartez ere eskuratu daiteke: jongoweb.com.

Zer da Kreos? Zein da helburua?

Jon Gorroño: Sormena garatuz eguneroko arazoei, pertsonalei zein lanekoei, konponbidea topatzeko karta jokoa da. 50 karta dira eta zenbait galderari erantzun behariko diogu. Erronka edo arazoa definituko dugu lehenengo galdera sorta bategaz, eta, ondoren, irten-

bide edo erantzun kreatiboak edo sortzaileak ematen ahaleginduko gara. Horretarako, perspektiba zabaltzera, gauzak beste begirada bategaz ikustera bideratutako galderak erabiliko ditugu. Azkenik, eragingunea zehazten lagunduko diguten galderak planteatuko zaizkigu: ekintza plan bat zehazteko, eman beharreko pausoak zeintzuk diren jakiteko. Jolasean hasteko, beroketa-kartak ere badaude, kofiantza hartzeko: *Zein animalia izan gura zenuke? Zergaitik?* eta halako galderak.

Buruan duguna errealtate bihurtzen laguntzeko erreminta da Kreos?

Rossana Ortuzar: Norbere buruagaz egoteko, perspektiba hartzeko eta ideiak ordenan ipintzeko oso erreminta baliogarria da.

Zelan sortu zen Kreos?

J.G.: Emakume ekintzaileentzako tailer baterako sortu zen. Sormenaren bitartez arazoei konponbideak emateko tailerra Interneten bitartez izan behar zen, eta tailerra osatzeko tresna lez sortu genuen. Karta jokoa aztertu eta probatu ondoren, hezkuntza arloan ere erabilgarria dela konturatu gara, edo arazo pertsonalak indibidualki lantzeko.

“**Sormenarekiko ikusmin apur bat duen edozeinentzat da baliogarria Kreos**”

JON GORROÑO

Zergaitik karta joko bat?

J.G.: Aspalditik nuen sormenagaz lotutako dinamika bat sortzeko go-go. Formatu bereziki interesgarria iruditu zitzaigun, eskuetan hartu daiteke eta, aldi berean, hainbat pertsonagaz partekatu edo jokatzeko aukera ematen du.

Hainbat arlotan lantzeko tresna da Kreos. Hala ere, bereziki nori bideratutako karta jokoa da?

J.G.: 12-13 urtetik 70 urtera arteko jendarteari zuzenduta sortutako produktua da. Hasieran, ekintzaileei bideratutako zerbitu izan behar zuen, profesionalki horretan dabilzanentzat. Baina konturatu gara sormenarekiko ikusmin apur bat duen edozein pertsonarentzat ere baliogarria dela.

Askotariko arazoei erantzuteko izarra ludikoko tresna bat da?

J.G.: Dudarik barik. Patroi edo eredu berdinei jarraitzeko joera dugu. Bada, karta joko honeguz gure muga mentalak gainditzen, apurtzen, ahalegindu gura dugu. Era zabalagoan pentsatzen lagundu. Irudimenak ez du mugarik. Gauza asko sortu izan dira aurretik norbaitek imajinatu izan dituelako, mugarik barik. Sormenagaz orokorrean, eta Kreoseguz bereziki, irudimena bultzatu gura da, bestelako ikuspuntuak eskaini. Gainera, sormena oso lotuta dago jolasagaz. Perfekzionismoa eta kritika dira sormenaren etsai nagusiak. Bada, epaiak baztertuz, irudimena erabiltzera gonbidatu gura dugu, bai enpresentzat bai norbanakoentzat emankorragoa delakoan.

R.O.: Sormena era orokorrean ulertu behar dugu, arlo askotan izan zintezke sortzaile. Batere sortzailea ez naizela pentsatu dut urteetan, baina ohartu naiz oker nengoela. Sormena landu egin daiteke.

J.G.: Sukaldean sortzailea zara, seme-alabekin hartu-emanean sormena erabiltzen da, eskolan... barnerratuta ditugun mugak apurtu behar ditugu. Kimikari edo zientzialariak ere oso sortzaileak dira.

Harrera ona izan du Kreosek?

J.G.: Itxaropen handirik barik, esperimendu lez ipini dugu salgai, eta erantzunagaz oso pozik gaude.

R.O.: Helduentzako tresna lez sortu zen. Baina lortutako *feed-back*a ikusita, umeentzat ere baliogarria izan daitekeela uste dut.

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea/ Jubilatua



Agroaldea

Zer da agroaldea bat? Nekazaritzari lotutako lur-eremua non aukera ematen zaien nekazaritzatik bizi nahi dutenei beraien bizi-proiektua garatzeko. Erakunde publikoek, udaletxe, Mankomunitate edo Foru Aldundiek, oinarritzko azpiegitura jartzen dute proiektuak bideratzeko. Elorrioren, horrelako asmoa errealtate bihurtzeko toki ezin hobea dugu: Pulla-Azkarreta. Bertan 10 hektarea daude Sprilurrek erosita industrialde bat burutzeko.

Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lurrik egokienak porlanez betetzen ari gara geroari begiratu gabe.

Zergatik behar dugu industria-rako lur gehiago Elorrioren bertan zenbait gune industrial badago garatu gabe? Esate baterako: San Agustinen (pabilioiak hutsik daude eta lur-eremu batzuk eraiki gabe), lehengo Forjas, Ire, Funcor (hutsik edo erdi jausita). Eta inguruko herrietan berdin.

Gure artean dugun pandemia honek argi utzi digu inguruko merkatuak bultzatu behar ditugula. Horrela jokatzeko gero gazteei eta langabezia daudenei aukera berri bat eskainiko genieke lanpostu zuzenak eta zeharkakoak sortzeko. Produktuak merkaturatzeko garaian hurbiltasunari esker ingurumenak eskertuko liguke.

Gauza onuragarri hauei erantzuteko egokia eta zuzena izango litzateke momentu honetan Sprilurrek Pulla-Azkarretan erosita dituen 105.630 m² horiek kalifikazioaz aldatzea eta industriagune hori abeltzain-nekazaritza gunea bihurtzea. Horrela, Sprilurren ondasuna sortzeko helburua mantenduko zen, premia gehiago duen elikagaien sorkuntzarekin.

Ea, Elorrioko Udala buru dela, proiektu hau martxan jartzeko eta errealtatea bihurtzeko bide egokiak jorratzen ditugun. Hala bedi!

HAUR HEZKUNTZA | LEHEN HEZKUNTZA | DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Erdu Gurekin! Berrizko euskal eskola publikoa

LEARRETA-MARKINA eskola
Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ
Tel.: 946 824 344 | 014097aa@learretamarkinaberriz.com
www.learretamarkinaberriz.hezkuntza.net

IES BERRIZ BHI
Elizondo plaza 7A 48240 BERRIZ
Tel.: 944 287 976 - 015073aa@hezkuntza.net
www.berrizbhi.com

AURREMATRIKULA
Urtarrilaren 18tik
29ra arte

2 urtetik 16 urtera • Jantokia eta garraioa • Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz